


ttüpi-ttapa

1995eko maiatzak 4 • 157. zenbakia

Elkarrizketa

Xabier Zubieta:
II. Berako mendi Itzuliaren
antolatzailea



ZABORRAK SUTAN
LABEAREN ONDOAN

Eusko Alkartasuna, mendialdearen indarra.

Nafarroaren mendialdeak, bere bizilagun, bere herri eta bailarek erantzunkizunez lan egingen duen ordezkaritza bat behar dute, zuzen eta indartsu.

Gure sustrai eta izateko maneran txertatua dagoen alderdi politiko bat, gure euskal kultura zaindu eta bultzatuko duena. Eta aldiberean, aktiboki lan egingen duena gure nekazal sektorea aitzinera ateratzeko, gure eskualdean hain inportantea dena; gure adinekoentzat erresidentziak lortzeko eta ARKUPEAK elkartearentzat laguntza gehiago; industria garatzeko, Alkaiagako Industrialdea bultzatuko duena EAko talde parlamentarioak egin duen bezala; plangintza sozio-ekonomikoaren alde, CEDERNA-GARALUR bultzatuko duena, zeinetan EAko hautagai kualifikatuak aktiboki parte hartu duten, Jose Maria Aierdiren lehendakaritza barne dela. Inork ez du EAK haina egin mendialdearengatik, eta penagarria da bertze alderdi politikoak gure zonaldean dituzten botoen indarrak baliatzea, gero, Nafarroako bertze eskualdeei begira lan egiteko.

Zure laguntzarekin eta Eusko Alkartasunari botoa emanaz mendialdearen indarra nabarmenduko dugu.



eusko alkartasuna
Responsabilidad



DATUAK

❖ Xabier Zubieta 21 urteko mendizale beratarra da. Lanbidez igeltseroa da.

❖ Ttikitan aitarekin joaten zenetik du mendiarako zaletasuna. Igo duen mendirik altuena Kilimanjaro da eta gehien gustatzen zaiona, berriz, Vignemal.

❖ Duela bi urte t'ardi sortutako Agerra Mendi taldeko kidea da. 65 bazkide inguru ditu taldeak, horietatik 25 federatuak.

❖ Momentu honetan, maiatzaren 21ean burutuko den II. Berako Itzulia antolatzen ari dira Agerrakoak.

Xabier ZUBIETA:

«Mendian ibiltzen denak aisa egin dezake II. Berako Itzulia»

ZEIN HELBURUREKIN ANTOLATU DUZUE II. BERAKO ITZULIA?

Hemen inguruko mendizaletasuna haunditzea nahi dugu. Mendia hor dagoela erakutsi nahi dugu eta jendeak mendi hori ezagutzea.

NORI ZUZENTZEN DIOZUE IBILALDIA?

Euskal Herriko mendi talde guzietara bidali dugu informazioa, baina gehien bat Berako jendeak eta gazteek partehartzea nahi dugu, eta ez bakarrik kanpoko jendeak. Guk 300-400 bat mendizalek parte hartzea espero dugu.

AURTENGOA BIGARRREN EDIZIOA DA. NOIZ EGIN ZEN LEHENBIZIKOA?

Ez dakit seguro, orain dela zortzi bat urte egin zela uste dut, baina ez zen egin oraingoaren gisara. Berako Itzulia antolatu zen, baina denbora neurtu gabe. Orduan, batzuk ateri ziren laisterka, bertze batzuk lasai... Bigarrena paratu diogu errekorrido berdina delakoz.

ETA ZEIN EZAUGARRI DITU IBILBIDE HORREK?

Mendian pixko bat ibiltzen den edozeinek egiteko modukoa da.



30 kilometro dira, gehienez zortzi bat orduetan egiteko. Egiten diren bertze martxekin konparatuz errea da. Gainera, jan-edateko lekuak bat bertzetik hurbil daude eta edozeinek posible du egin. Beraz, jendea animatzea espero dugu.

HONETAZ GAIN,

»Berako jendeak eta gazteek partehartzea nahi dugu eta ez bakarrik kanpoko jendeak. Hirurehun edo larehun bat mendizalek parte hartzea espero dugu.»

ZEIN EKITALDI ANTOLATZEN DITU URTEAN AGERRA MENDI TALDEAK?

Joan den urtean Anetora irteera bat eta bertzelako trabesiak egin genituen. Aurten eskiatzera joan gara bi aldiz eta bietan autobusa bete dugu. Ekainaren 4an Hiru Errege Mahaira autobusa antolatuko dugu eta abuztuan asteburu batez Vignemalera joateko intentzioa dugu. Irailan Beratik Belaguara bortz egunetan trabesia

egitea polita izanen zen, baina oraindik airean dago.

MENDI TALDE BATEAN FEDERATUA EGOTEAK ZEIN ABANTAILA DITU?

Nere ustez, mendian hemendik kanpora pixko bat ibiltzen denak federatu behar du. Horrela baduzu segurua, istripu bat izanez gero helikopteroaren laguntza eskeintzen dizu, errefugioak merkeagoak dira... Nahitahiezkoa da federatua izatea.

TESTUA :
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
JOXEMANUEL IRIGOIEN

ZER EGITEN DA HAINBERTZE ZABORREKIN?

Gero eta hondakin gehiago sortzen dugu. Ikerketa ofiziletan ageri denez, Europako hiritar bakoitzak urtean 600 Kg. hondakin sortuko omen dugu 2.000. urtean industria eta ospitaletan sortzen dena kontatu gabe. Horrek erran nahi du mende honen bukaeran gure zonan 18.000.000 kg. zabor sortuko direla urtero, pertsona bakoitzeko 6 m³. Kontua zera da; zer egin hainbertze zaborrekin? Funtsean, hiru dira zaborren tratamendurako sistemak: Zabortegi kontrolatua, birziklatze-konpostatzea eta labean erretzea.

Zer egin hainbertze zaborrekin? Galdera honek txek hameka buruhauste sortzen ditu. Udal eta Mankomunitatek aukeratu beharra daukate zein den eurentzat tekniko-ki eta ekonomikoki bideragarria den sistema, eta aldi berean, ingurugiroa eta osasun publikoa guttien kalteztzen duena. Zentzu horretan, zaborren tratamenduei dagokionez, funtsean hiru sistema daude; zabortegi kontrolatua, birtziklatze kon-

postatzea eta azkenik, labean erretzea. Praktikan, soluzio bakarra izan beharrean, soluzio mistoak aukeratu dituzteneko lekuak ere badaude.

SISTEMA BAKOITZAREN EZAUGARRIAK

'Zabortegi Kontrolatua' eremu itxi batean kokatzen da. Zaborra bi metroko kapetan zabaltzen da, eta ongi zanpatu ondotik, estali egiten da lurrez. Sistema honen problemarik nagusiena urzikinena da. Eurria egiten duenean ura zabor kapetan sartzen da, eta biltzeko sistema

egokirik ezartzen ez bada, inguruko iturri eta errekek serioski kutsatzeko arriskua dago. Bortziritan adibidez, hori gertatu da, eta momentu hauetan, problema hori moldatu nahian dabilta.

Bertzalde, zaborrak labean errez ez dira desagertzen. Sistema honekin, hondakin hoiien %30a errauts bihurtua gelditzen da, tximiniatik ateratzen dena kontutan hartu gabe. Errautsak botatzeko, gainera, zabortegia behar da antolatu. Teknikoek diotenez, labeak dira 'tratamendu sistematik garestiena eko-

HIRI HONDAKINAK: ZONA MAILAKO DATU OROKORRAK

	BAZTAN	BORTZIRIAK	GOIZUETA ARANO	LEITZA LARRAUN	MALERREKA	SARALDEA Sara-Zugar.-Urd.
ZABORREN TRATAMENDU MODUA	Labea eta Zabortegi ez-kontrolatua	Zabortegi kontrolatua	Zabortegi kontrolatua	Gongorako zabortegira eramaten dute	Labea	Labea eta Zabortegi kontrolatua
EGOERA	Txarra	Ona	Oso txarra	Ona	Oso txarra	Ona
HONDAKIN KOPURUA Pertsona / Urteko	266,2 Kg.	365 Kg.	-	-	-	-
BILKETA SELEKTIBOAK	Kristala, Trasteak eta animalia hilak	Kristala, Trasteak eta papera	Kristala	Kristala, Trasteak eta papera	Kristala eta Trasteak	Kristala, Trasteak
ETXE BAKOITZEKO URTEKO TASA	4.500 Elizondo 4.000 Iruritan 3.000 bertzeak	6.300 herrian 5.360 baserriak 4.410 baserriak	1.700 herrian baserrietan ez da biltzen	5.496 herrian baserrietan ez da biltzen	6.252 Donezt. eta Bertizaran. 4.807 bertzeak	- - -

DATU ITURRIAK: Malerrekako Mankomunitatearentzat 'Giroaz' eta 'Lorea' taldeek egindako ikerketa; Bortziritako Hiri Hondakinaren Mankomunitatearentzat 'Hibaia'k egindako ikerketa eta Nafarroako Mendialderako Plan Estrategikoaren analisi sozioekonomikoetan agertutako datuak.

TESTUA :
JOXEMANUEL IRIGOIEN

nomikoki eta sortzen dituen hondakinak arriskutsuak izaten ahal dira osasun publikoarentzat'. Dirudenez, tximinietako filtroek nekez biltzen ahal dituzte partikula kutsagarri guztiak.

BAZTAN ETA MALERRERKAN, ZABORRAK ERRETZEKO LABEAK «DESASTRE EGINAK DAUDE». HALA DIOTE 'GIROAZ' ETA 'LOREA'KO TEKNIKOEK. DIOTENEZ, LABE HAUEK EZ DITUZTE BETETZEN INOLAZ ERE LEGEDIK MARKATZEN DITUEN BALDINTZAK.



'VIDRALA' DA ESTADU ESPAINOLEAN KRISTALA BIRTZIKLATZEAZ ARDURATZEN DEN ENPRESA BAKARRA. MONOPOLIO EGOERA HONEK SORTZEN DUEN DINAMIKAREKIN EZ DAUDE BATERE KONFORME INGURU HONETAKO ZENBAIT UDAL ETA MANKOMUNIDADE.

dingo zabortege kontrolatuta biltzen dira eta bertan lurperatu. Zabortege hau 1990ean jarri zen martxan eta 20 urtetan arras betetzea espero da. Zabortegiko urzikinek erreka kutsatzen dutela eta, momentu honetan urak bildu eta Berako depuradorara bideratzeko obra ari dira egiten.

Hemendik bi hilabetetara (uztailean) papera eta kartoia biltzeko zerbitzu berria jarriko dute martxan.

Goizuetako 'zabortege kontrolatua' 1992an jarri zu-

ten martxan. Gaur egun oso egoera txarrean dago. Baserrietan ez da zaborrik biltzen.

Malerreka eta Bertizaranako zaborrak Beintza-Labaiengo errausgailura eramaten dituzte eta kristalak Bortzirietako zabortegian pilatzen dituzte. Labea 1987an egina da eta 'desastre bat egina dago. Gaur egun zaborraren erdia labearen ondoren erretzen da, tximiniak ez du inolako filtrorik, sortzen dituen errauts eta hondakinak mendian beheiti bota-

ZABORRAREN

OSAKETA

Zonako zaborraren osagaiak aztertu ondotik, banaz bertze, hauxe da bere konposizioa

MATERIA ORGANIKOA.....	%61
PAPERA-KARTOIA.....	%12
PLASTIKOAK.....	%5,6
KRISTALA.....	%5,3
TRAPUAK.....	%3
METALAK.....	%3,5
TOXIKOAK.....	%2,4
TETRA-BRIK.....	%2,4
Bertzeak.....	%4,7

Datuak:
'Giroaz' eta 'Lorea'ren ikerketa

zten dira eta bakarrik 1993an 10 milioi pezeta baino gehiago gastatu ziren biltzen den zabor guzira erretzeko kapazidaderik ez duen labe honen aberietan'. Halaxe dio 'Giroaz' eta 'Lorea' taldeek Malerrekako Mankomunitatearentzat egin zuten estudioak. Baserrietan ez da zaborrik biltzen.

Leitza-Areso eta Saraldean sortzen diren zabor eta hondakinak ez dira herri hoietan tratatzen. Leitza aldekoa Arangurengo bailaran dagoen zabortege kontrolatura eramaten dute eta Saraldekoa Senperera.

ZEIN DA ALTERNATIBA?

Aspaldiko urtetan gai honekin bueltaka dabilta Europa osoko administrazio publikoak. Planteatzen dituzten proposamenen artean bi dira bereziki aipagarriak: zabor guttiago sortzea (produktu komertzialetan azal edo enbortorioak guttitz...) eta zaborrak selektiboki biltzea kategoria diferentetan, gero batzuk birziklatu eta bertzeak konpostatzeko. Nafarroan bada gisa honetako esperientzia bat Lizarraldean (Karkar herrian), eta dirudienez ederki funtzionatzen duena da. ■

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 5.950 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

zendaria: Joxemanuel Iri-
gien. **Publizitatea:** Miren Kar-
le Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
Arozena, Joxemanuel Irigoien.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzio taldea: Pello Ape-
txea, Juainas Paul, Kristina
Boan, Bittori Telletxea.
Erreimaleak: Joseba Azpiroz,
Esteban Arozena, Juana Mari
Aizari, Ainhoa Mutuberria, Iban
Gasi, Txema Aldabe, Pello
Apeztegia, Txema Urroz, Patxi
Aizandorena, Daniel Martirena,
Luisabel Maia, Josune Etxebeste,
Eduardo Mendiburu, Joseba
Aparabide, Alizia Olaizola, Margari-
te Aizenkete, Koro Irazoki, Mixel
Aizendiain, Jacqueline, Elixabet
Aizuri, Garbiñe Maiz, Oskar
Aizopereña, Alberto Sansiñena,
Pello Apeztegia, Aitor Arozena,
Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:**
Mikel Nafarroa, Patxi Lasa, Mikel
Aizopereña, Joxe Javier Etxe-
barria, Arantxa Zabala...

Primategia: Gertu (Oñati).
ttipi-ttapa ez du bere gain har-
rean derrigorrez, aldizkarian adie-
ritatikozko erranen eta eritzien eran-
kizunik.

Agintariek Laguntzaileak: Bera,
Aizopereña, Goizueta, Areso, Baztan,
Aizopereña, Zugarramurdi eta
Aizopereña udalak, Bortzirietako
Euskara Mankomunitatea,
Aizopereñako Zerbitzu Mankomu-
nitatea...

GAURKOTASUNEKO GAIA

Udal-hautagaiak eta euskara

Udal agintariak eredu eta erreferentzia nagusia dira



Paula KASARES
Euskara Teknikaria

Udal agintariak euskaldunak izateak, gure herrietako errealtate soziolin-
guistikoarekin bat datorren or-
dezkaritza izateaz gain, uda-
lak, bere barne funtziona-
menduan (udal batzarreak, ak-
tak), zein herritarrekiko har-
remanetan egiten duen hiz-
kuntz erabileran eragin zuzena du.
Udal agintariak herritarren-
dako eredu eta erreferentzia
nagusia dira, eta hauen hiz-
kuntz jokaerak herri mailako
euskararen prestigioa igo ala
jeitsiarazten ahal dute.
Hauteskundeak gaineran di-
tugula, merezi du euskaldun-
ok, alderdi politikotako zer-
rendaburuek gure hizkuntza-
erabilerakiko erakusten duten
sentsibilizazioaz gogoeta egi-
teak, bai eta zerrendaburuek
noren ordezkari izan nahi du-
ten ere ongi hausnartzeak.

Udal talde eta alderdi politikoen kontradikzioak



Juan Miguel ALMANDOZ
Bortzirietako Eusk. Man.

Aurkeztu diren zerrendatoko lehen postuei begira, hautagai gehienak euskaldunak direla ikusten dugu. Halere, edozein taldetan gertatu ohi den bezala, Udaletan ere zinegotzi erdaldun bakarra nahikoa izaten da giroa erdalduntzeko eta horrelakorik aurten ere gertatzen ahal zaigu. Bertzalde, ezin ahantzi euskaldunak izanda ere, aurkako jarrera duten zinegotziak. Bortzirietako Euskara Mankomunitadetik begira, kontradikzio ugari ikusten dugu gait honetan. Azkeneko sei urteotan gure Herriko Etxeak (funtzionamendua, langileak...) euskalduntzen saiatzen ari gara baina bertzaldetik, lau urtetik lau urtera alderdi eta taldeek hautagai erdaldunak sartzten dituzte, eta horiek, euskaraz funtzionatzeko oztopo dira. Ikusitakoak ikusita, iduri du alderdi eta taldeek, zerrendak osatzerakoan erdaldunak, erdaldun izateagatik ez dituztela kanpoan uzten. Hauei guttienez eskatzen diegu urteotan egin dugun lana errespetatzeko eta euskara ikasten ahalegintzeko.

Alkate eta zinegotzien ejenplua nahi dugu!



Juainas PAUL
Zurkaitza Elkarte

Gauza jakina da udaletxe batean alkatea edo zenbait kontzejal erdaldunak direnean, udal horretako funtzionamenduak erdaraz segituko duela izaten nahitanahiez. Zentzu horretan, ez dugu ahaztu behar inguru hauetako jendearen %70a baino gehiago euskalduna edo ia euskalduna izanik, ahalegin serioa egiten ari dela laster batean arras euskalduna izateko. Ahalegin horretan administrazioak eta politikoez aitzindari eta eredu izan behar dute. Herri osoaren ordezkari dira, baita euskaldunak garenon ordezkari ere. Horregatik, udal talde eta alderdi politikoei zera eskatzen diegu:
— Datozen lau urteotan alkate eta zinegotziek euren eginbeharrak euskaraz burutzeko gauza izatea.
— Hortarako gauza ez direnak, eta euskararen aldeko agertzen direnak, lau urteotan euskara ikasteko konprometua hartzea.
— Euskaldunak diren hautagaiak, euren eginbeharrak euskaraz betetzeko konpromisoa hartzea.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen du

BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia




121 errepede nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

BOTA BERTSOA

Herri Urrats



Biotz UNANUA

Baztango Bertso Eskola
Neurria: Zortziko Haundia

Ohitura zaharra den Herri Urrats urtero baita ospatzen aurtengo hontan hamalauena besta daukagu Senperen egun honetan eguraldiak ea gaituen laguntzen eta bertzetan bezainbat jende harat abiatzen garen.

Goiz goizetikan euskaltzaleak Senperen bilduko gera gure artean ohi den bezala Herri Urrats ospatzera berriro ere hemen dugu ta ez dezagun gal aukera gure laguntzaz indartu dadin Iparraldean euskera.

IRAKURLEAK MINTZO

Argentinatik agur bero bat

Nere adiskide maiteak: Lehenbiziko esan bear di-zuet zorionak TTIPI-TTAPAKO idazle guztiantzat. Sarako baserritarren erreportaiak garrantzia aundiya izandu du. Egia errateko, beñere ezttut iracurri horrelako idazkirik. Ni zaharra naiz, baño, aurrari eta gaztiari eskolan eta ikastolan behar luteke iracurri 'Quijote' n lekuan.

Sara hurbill da, euskaldun jatorrak dire. Iduitzen zait ongi hartuko dutela zuen visita. Ni hor banitzeke jua-nen nitzeke lasterka, be-sarka aundi bat ematera eta Jangoikoari eskatzeko gure otoitzakin zori ona denan zat. Saratarrak ongi antolatu dute lantegui berria kooperatiba txiki bat be-zala.

Agian obekiago, orain ha-siko dire, asteburutan egun bat libratzen eta hamabortz egun urtean. Badakizue lehenago etchean norbait guelditu biar zuen, "horziok bada, koxka".

Antton Maizen testua, oso polita da. Gure laguna da. Arantzako pillot plazan, behar luteke iruditu plaka bat, harrian grabatua. Uste dut merezidula. Izan dayela.

Urrengo arte, zuek naizuen bezala, eskerrik asko, agur. Barkaziazue nere utsak, be-rroguey eta amar urte euskeraz solasik eguin gabe asko da.

MIGUEL LIZARDI
SAN MIGUEL DE TUCUMAN
(ARGENTINA)

Zuzendariari

TTIPI-TTAPAKO zuzendari jau-na: Gu Goizuetako eskolan 5. mailako ikasleak gara. Esan behar dizugu ez gaudela ados aldizkari honetan euskara eta gaztelan-iarri buruz heldu den datu bilketa horrekin. Goizuetan guztiok euskaraz hitzegi-ten dugu, eta ia inork ezdu

gaztelanieraz hitzegiten. Zuek etorri zineten egune-an kanpotarrak izango ziren herrian.

Mesedez, datu hoiek al-datzea eskatzen dizugu, eta asko eskertuko dizuegu oker hau zuzendu ondoren berriro TTIPI-TTAPAN azaltzea. Hauxe gustatuko litzaiguke. Eskerrik asko eta agur.

5. MAILAKO IKASLEAK
(GOIZUETA)


TTIPI-TTAPAREN erantzuna

Lehenik eta behin eskertu nahi dizuegu, 5. mailako neska-mutiko gaztetxoak izanik, aldizkaria irakurtzen egin duzuen ahalegina eta horretaz gain, guri idatziz, akatsetaz ohartarazteko egin duzuen ahalegina. Halere, esan nahi dizuegu ez dela TTIPI-TTAPAKO inor Goizuetara joan euskara-ren erabileraren neurketa egitera. Lan hori Leitza eta Goizuetako Euskara Zerbitzuak hartu zuen, eta aldizkarian agertzen diren datuak, beraiek bildutako-ak dira.

Beraz, ezin dugu gureak ez diren datuak zuzendu. Eskerrik asko zuen boron-date onarengatik.

OHARRA:

*Eritzi ezbedinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Labürtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapak** bere esku izanen du horretarako eskubidea.*



ZABALDU OSTATUA

LESAKA



KATTU
OSTATUA
JATETXEA

MATXINBELTZENA

LESAKA

Arretxea, 22 • Tel.: 62 75 73, Faxes: 62 75 53 • LESAKA



ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91



Egunkaria 95-IV-26

«Sator ehiztaria izan naiz betidanik eta 'sator' hitzarekin errimatze eta polita gelditzeko 'sagu' erantsi genion».

Sagu eta Sator
Leitzako trikitilariak
Egunkaria 95-IV-26

«Gimnasia programak jasotzen duen erantzuna hain ona da

eta hainbat sozio biltzen ditu, aurtengoan ikasturte bukaera Iruñera eramatea erabaki dugula, garrantzi gehiago emateko intentzioarekin».

Felipe GANBOA
Arkupeak elkarte
lehendakaria
Diario de Noticias 95-IV-21

- ◆ **Zenbat urte dituzu?**
- ◆ 23 urte.
- ◆ **Pazientzia behar da ostatuan aritzeko?**
- ◆ Bai, aunitz.
- ◆ **Zein edari duzu gustokoena?**
- ◆ Coca Cola.
- ◆ **Turistak hemengoak baino exigenteagoak dira?**
- ◆ Ez, nahiko errexak dira.
- ◆ **Zein auto gustatzen zaizu?**
- ◆ Golf-a.
- ◆ **Zer erretzen duzu?**
- ◆ Rubioa.
- ◆ **Aste Saindutan jende aunitz ibili da ostatuan?**
- ◆ Bai.
- ◆ **Zein lore maite duzu?**
- ◆ Arroxa.
- ◆ **Zer nahiago duzu, pistzinarat edo hondartzarat joan?**
- ◆ Hondartzara.
- ◆ **Asteburutan zer edaten du jendeak?**
- ◆ Kafeak, kopak eta errefreskoak.
- ◆ **Gogorra izanzen zen zuretzat lan egiteko herritik kanpora joan behar izatea?**
- ◆ Bai, nere xokoarekin lotura handia dut.



Ana Belen ANTSALAS
Zugarramurdi
Antsalas' ostaturak

PIKABEA

Lehen Molinero izandakoak

pinturak

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • **BERA**

Zure inguru klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55
BERA

DROGUERIA MOLINERO



• **DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •**
Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40
BERA



GARRAIO URGENTEAK
HALCOURIER

- Paketeak
- Dokumentoak
- Halcourier gestion
- Hiri barnean
- Hiri artean
- Nazio artean
- 10 eta 24 orduko zerbitzua

BERA ☎ 630557 - 631267
IRUÑEA ☎ 241516



Ipuin lehiaketan sariak banatu dira

16 urte arteko mailetan 220 partehartzaile izan baziren ere, haundietan bat bertzerik ez

KRISTINA BOAN

Apirilaren 23an banatu ziren Gure Txokoak antolatutako XXIII. haur ipuinen 'Bera' Sariaketa eta IX. Bidasoa ipuin Sariaketa lehendabiziko sariak.

Haundien sariketan lan bat bertzerik ez zen aurkeztu, Jon Abrilena, eta aipamena eman zitzaion. Ttikien sariketan aldiz, 220 lan aurkeztu ziren.

Horien artean, 9 urte arteko mailan Iranztzu Pastor izan zen irabazlea eta Jaione Jaugregik aipamen berezia jaso zuen. 10 eta 11 urte arteko mailan lehen saria Egoitz Zabaletak eskuratu zuen lehen saria eta bigarrena Beñat Tabernarentzat izan zen. 12 eta 16 urte arteko mailan, azkenik, Gorka Retegiren idazlana izan zen onena epaimahaiaren ustetaz eta bigarren saria Naiara Maiaren eskuetara joan zen.

HAUTESKUNDEAK

Herrialde



Manuel Iriarte Huarte, 55 urte, Palmaderako lang.

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Fco Javier Altzuguren Urtxegei 3. J. Ramon Pikabea Zubieta 4. Fco Javier Iturria Linazosoro 5. Fermin Garcia Mindegia 6. Antonio Lasarte Pellejero 7. Idoia Goñi Lasarte 8. J. Fermin Altzuguren Matxikote 9. M^a Isabel Pardo Romero 10. Jose M^a Iturria Linazosoro 11. M^a Carmen Telletxea Irigoien

EA



Jose M^a Irazoki Iriarte, xx urte, CSiko lang.

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Agustin Portu Etxabide 3. Gloria Agerri Asiain 4. Jose Ramon Martin Retegi 5. Helena Santesteban Gelbentzu 6. Josefa Olaetxea Altugarai 7. Aitor Martiarena Cordoba 8. Javier Fagoaga Telletxea 9. Javier Zelaieta Ameztói 10. Agustin Daguerre Martinez 11. Jose Luis Senper Etxeberria

HB



Josu Unsiñ Pabolleta, 39 urte, preso politikoa.

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Imanol Larrañaga Alberdi 3. Jose Angel Altzuguren Perurena 4. Jose Martin Susperregi Arruti 5. Josu Goia Etxeberria 6. Maite Elgorriaga Errandonea 7. Iñaki Gogorza Billaona 8. M^a Carmen Prieto Beltran 9. Jon Abril Olaetxea 10. Guadalupe Mendigutxia Etxebeste 11. Jose M^a Lertxundi Etxeberria

Alfonso Sastreren hitzaldia maiatzaren 13an Kultur Etxean

Maiatzaren 13an, larunbata, arratseko 8,30etan Alfonso Sastreren hitzaldia aditzeko aukera izanen da Kultur Etxean.

Lehenbiziko Lami-

xine BAT taldekoek egile horren lan bartzuren irakurketa egiten dute. 9ak inguruan Alfonso Sastre berak eta 'Eolo' eta 'Iruñea Pequeño Teatro' tal-

deetako antzesleek hitzaldiari hasiera emanen diote, antzerkigilearen bizitza eta lanen berri eskainiz.

Ekitaldi hau joan den apirilaren 23an os-

patu zen Liburuaren Eguneko egitarauaren barnean antolatu du Udal Kultur Batzordeak, Lamixine BAT antzerki taldearen laguntzaz.

ttipi-flash

Funberan

azken urtean, 93 langile izatetik 124 izatera pasatu dira, Nafarroako Gobernuako Industri kontseilariak apirilaren 27an bertara egindako bisitan adierazi zuenez.

Bertso saioa

Maiatzaren 7an, arratsaldeko 5etan bertso saioa izanen da Kultur Etxean (parte hartuko duten bertsolariak agendan ageri dira). Egun horretan emanen dira bertso paper lehiaketako sariak.

Polikiroldegiko ardurua

hartzeko lehiaketa zabaldu du udalak. Urteko prezioa 600.000 pezetakoa izanen da. Xehetasunak eta proposamenak aurkezteko Herriko Etxeko idazkaritzara joan behar da.

LABEZAR
© 631076 • BERA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 • BERA

BOAN
TAILERRA
CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 63 06 23 • BERA

SAROBEOkindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA



Ipuin eta komiki lehiaketa antolatu du ikastolak

Sei eta hamalau urte arteko ikasle lesakarrei zuzenduta dago

AITOR AROZENA

Tanturumairu ikastolak hamabigarren Txoko-Txiki ipuin eta komiki lehiaketa antolatu du, sei eta hamalau urte arteko ikasle lesakarrei zuzendua.

Lan guztiak maiatzaren 8a baino lehen igorri behar dira ikastolara. Ipuin-egileek gaia librea izanen dute. Bigarren eta hirugarren mailakoek orrialde bat bete beharko dute guttienez, 4. eta 5. mailakoek orrialde terdi eta sei garren mailatik goitikoak bina orrialde. Komikiak eginen dutenek seina biñeta egin behar dituzte guttienez, 'Oporrak' hartuz gaitzat.

Ohikoa denez, ipuinak eta komikiak goitizenez sinatu behar dira eta aparteko orri batean egilearen izena, adina, maila eta helbidea paratu. Bi orriak batera, sobre batean sartu eta ikastolara bidali behar dira.

HAUTESKUNDEAK

PNV



J. Luis Etxegarai Andueza, 47 urte, CSIk langilea

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Carlos Ubiria Portu 3. Esteban Etxebeste Apeztegia 4. J. Fermin Mitxelena Larralde 5. Esteban Irazoki Irazoki 6. Jose Zapiain Altzugarai 7. Justo Agirretxe Mazizior 8. Javier Altzugarai Martiarena 9. J. Antonio Fernandez Alvarez 10. Santiago Larralde Almandoz 11. Miguel M^a Irigoien Iparagirre

HB



Eduardo Konde Rekondo, 32 urte, langabezian

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Carlos Santiago Etxeberria 3. J. Javier Igoa Portu 4. J. Emilio Txoperena Zugarramurdi 5. Agustin Maritxalar Tapia 6. Edurne Rekondo Ferrero 7. Amaigoia Susperregi Bergara 8. Manolo Arozena Mitxelena 9. Izaskun Portu Telletxea 10. Jesus M^a Aiestaran Andueza 11. Juan M^a Etxeberria Tapia

EA



Severiano Txoperena Matxikote, 34 urte, oilasko saltzailea.

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Jose Ramon Maritxalar Iturbide 3. J. Emilio del Rio Etxeberria 4. Consuelo Iturria Altzugarai 5. Jesus M^a Zapiain Altzugarai 6. M^a Carmen Ubiria Iguzki-agirre 7. Juan Carlos Pikabea Zubiri 8. M^a Victoria Apeztegia Leitzza 9. Isidro Saralegi Jaurena 10. Dionisio Arriola Altzugarai 11. Marcos Oiartzabal Igoa

Bertso Astea arrakastatsua izan da

Arrakastaz garatu da Bortziritako bertso eskolak antolatutako I. Bertso Astea. Apirilaren 22an, puntako puntako bertsolari

gazteak aritu ziren gainezka ageri zen Herriko Etxeko pleno aretoan. Larunbat honetan berriz, bertso paper eta 'bertso zaharrak kan-

tatuz' lehiaketetako sariak banatzearekin batera, Zarautz eta Bortziritako bertso eskoletako gaztetxoak aritu ziren bertsoan.

ttipi-flash

❖ Sokorrismo ikastaroa

antolatu du Bortziritako DYAK. As-teartean hasi da eta borts aste iraunen du, astelehenetik ortziralerara, arratsko 7,30etatik 9,30etara Irain eskolan. Azken proba gainditzen dutenek sokorrismo diploma eskuratuko dute.

❖ Parisera autobusa

antolatu du Amnistiaren Aldeko Bartzordeak, estatu frantsesean dauden presoen egoera salatu asmoz. Maiatzaren 6an, gaueko 9etan ateriko da Plaza Zaharretik.

❖ Juan Carlos Pikabea

margolari lesakarrak Madrilera Juan Calvo aretoan zintzilikatu ditu bere lanak apirilaren 18tik maiatzaren 1era.

❖ Txankla

antzerki taldeak emanaldi bat eskeiniko du frontoian maiatzaren 20an. Udalak 50.000 pezetako dirulaguntza eman dio taldeari.

**KOXKILA
OSTATUA**



Zarandia, 4 - LESAKA



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

- TXERTOAK • PARASITO KENTZEA •
- IDENTIFIKAZIOA (MIKROTXIPA) • ZIRUGIA •
- ANALISI KLINIKOAK • PENTSU ETA OSAGARRIAK •

Albistur 51
Tfnoa: 62 76 60
LESAKA

ORDUTEGIA

9,30etatik 1etara eta 5etatik 8etara
Larunbatetan 9,30etatik 1etara

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria, 67 - © 637264

Etzalar

Kooperatibako asanblada orokorak 94ko kontuak onartu zituen

PELLO ETA ALBERTO

Usoa Kooperatibak dituen 90 sozioetatik 26 bildu ziren apirilaren 8ko asanbladara. Bertze gauzen artean iazko kontuak onartzea erabaki zen ahobatez. Iaz 64,6 milioi pezeta-ko salmentak egin zituen kooperatibak, 93an baino %6a gutiago. Ageri denez, herriari azinda gutiago denez kontsumoa ere guttitu egin da. Hala ere, 1993arekin konparatuz, ondoko herrietatik erosle gehiago etorri zen iaz. Kontutan hartu behar da kooperatibak 109 erosle izan zituela iaz, eta hoietako batzuk ondoko herrietakoak direla. Zentzu honetan, sozio ez diren erosleak

HAUTESKUNDEAK

Herri Taldea



Migel Mª Irigoien Sanzberro, 43 urte, CSIko langilea

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Imanol Iturria Arburua
3. Jose Mª Arburua Irigoien
4. Arantxa Mikelestorena Zubieta
5. Mirari Antsalas Danboriena
6. J. Javier Zubieta Sanzberro
7. Santiago Elizagoien Zubieta

EA



Bruno Genua Irigoien, 45 urte, Zentraleko langilea

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Gabriel Arburua Etxeberria
3. Bernarda Andueza Gomez
4. Aitor Sansiñena Sarobe
5. Jose Mª Pikabea Iziaga
6. Carmelo Senper Etxeberria
7. Manuel Leza Olaizola

UPN



Jose Ignacio Berrueta Agirre, 47 urte, CSIko langilea

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Antonio Etxeberria Etxeberria
3. Juan Mª Olagarai Etxarte
4. Isidro Ariztegi Ariztegi
5. Martin Antsalas Oskariz
6. Jaime Sanzberro Arretxea
7. Tomas Arribilaga Danboriena

sozio egitea nahi luke kooperatibak. Sozio egiteko hamar mila pezeta ordaindu behar

dira eta kooperatibak eskeintzen dituen abantailak baliatzen ahal da horrela. Api-

rilaren 23an egin zuten sozio-arte-ko bazkaria. 30 lagun bildu ziren, giro ederrean.

ttipi-flash

- ❖ **Lesakako 'Beti Gazte'**
Bortziritako Kirol Koordinatzaileak betetzen zuen lana Lesakako Beti Gazte hartu du.
- ❖ **Igerilekua**
Ekainaren 10etik irailaren 17ra arte irekiko dira eta, iaz bezala, bi langilek zainduko dute bere funtzionamendua.
- ❖ **Sukaldaritza ikastaroa**
bukatu da. Azarotik martxo arte iraundu, 16 lagunek parte hartu duten sukaldaritza ikastaroak. Eta, nola ez, afalduz eman diote akabera.
- ❖ **Landagain eskolak**
sukalde ondoan duen idorpea itxi zenetik egokitze lanak egin beharrak zituen, haurrendako leku hotza baitzen. Udalak moldaketarako laguntza eskatu dio Gobernuari.

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

ZALAIN
J A T E T X E A
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
© 63 09 67
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

« **USOA** »
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
Urte berriarekin batera indarberrituak
Kuadrila, elkarte etabarrentzat... menu bereziak prestatzen dira
© 635290
ETXALAR

koxkonta
Sagardotegia zabalik
Deitu enreserbak egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

Igantzi

Larunbat honetan inauguratuko da Zahar Etxea, pizina eta tenis pista

Berriz ere bi talde aukeran udal hauteskundeetan



47 lagun joan ziren apirilaren 22an Goizuetara. Azken momentura arte eguraldi txarrarengatik dudatan egon baziren ere, zintzo aski atera ziren 8etan, bortz orduko ibilaldia betetzeko. Gainera, inoiz baino hobekiago pasatu omen zuten Goizuetan bertan.

OSKAR TXOPERENA

Azken aste hauek garbitzen eta txukuntzen pasatu ondotik, maiatzaren 6an inauguratuko dira Baratzondoko obrak. Iduri du azkenean hainbertze aldiz luzatu behar izan den eguna ailegatu dela. 12ak aldera emanen zaio hasiera

ekitaldiari bedeinkapenarekin eta bertan herriko abesbatza, dantzariak, tenis erakustaldia, etabar... izanen ditugu. Ez da hitzaldirik ere falta izanen seguraski, Iruñeako Ongizate Sozial eta Kiroletako kontseilaria den Ricardo de Leon etortzekoa baita, Miguel

Sanzekin batera. Akautzeko, hameketako eskeiniko die udalak bertara hurbiltzen direnei.

PISZINEN MANTENIMENDUA

Piszinen mantinimendu eta gestioa arautuko dituzten baldintzak onartu zituen udalak bere azken bileran. Epea ireki zuten

HAUTESKUNDEAK

Herri Taldea



Juan Jose Txoperena Matxikote, 49 urte, iturgina

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Ramon Retegi Iturbide
3. Vidal Etxarte Martinez
4. Miguel Angel Retegi Iturbide
5. J. Ramon Etxeberria Mendigutxia
6. Felisa Goienetxe Etxeberria
7. Lander Sein Sein

PNV



Jose Javier Urtxegi Huizi, 42 urte, CSiko lang.

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Juan Carlos Huizi Zozia
3. Jose M^a Sainz Irigoien
4. J. Antonio Etxebeste Urtxegi
5. Juana M^a Fernandez Rodrigo
6. Alfredo Iguzkiagirre Iturbide
7. Santiago Etxeniek Zubia

bidenabar uda honetan lan hori egin nahi dutenak izena emateko. Bete beharreko bal-

dintzen berri jakiteko ahalik eta azkarren udaletxean informatzea da hoberena.

ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guzietako mogleak



ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - LESAKA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, ☎ 63 05 98

BERA

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63



Bortzak Bat kooperatibak 25. urteurrena ospatuko du

Maiatzaren 13an Amaia Zubiriaren kantaldia eta 14ean musika, meza, herri kirolak eta bazkaria izanen dira

GARBINE ETA ELIXABET

Bortzak Bat nekezaren kooperatiba sortu zela hogeitabortz urte iragan direla eta hainbat ekitaldi burutuko dira maiatzaren 13 eta 14ean.

Larunbatean, arratsoko 9etan, Amaia Zubiriak kontzertua eskeinitiko du elizan.

Biharamonean, goizeko 10,30etan diana joko dute txistulariek eta trikitilariek. Iletan meza nagusia, Esteban Irigoien eta Francisco Aranguren apezak, kooperatibaren sortzaile eta bultzatzaileak bertan izanen direlarik. Eguerdi aldera herri kirolak burutuko dira. Arantza eta zonaldeko haur eta gazteak parte hartuko dute sokatira eta proba



konbinatuan. Norgehiagoka hauek Nafarroako txapelketarako baliagarriak izanen dira. Ondoren, 2etan, bazkaria izanen da Aterpe erretegian. Bazkari honetan, edonork parte har dezake, baina horretarako maiatzaren 7a baino lehen

634179 telefonora deitzea gomendatzen dute antolatzaileek. Bazkalondoan, dantzarako giroa paratuko du Modestok.

GURASO ELKARTEA

Urtero bezala, eskolako guraso elkarteak lau pertsonen utzi dute eta bertze lau sartu.

HAUTESKUNDEAK

AA




Joxeramon Amoros Oskoz, 36 urte, irakaslea.

ZINEGOTZI-GAIAK:

- Gregorio Mitxelena Ordoki
- Javier Etxebeste Bereau
- Xabier Zugarramurdi Altzuri
- Jose Luis Iparragirre Salaberria
- Teodoro Pikabea Zubieta
- Imanol Iturria Almandoz

Utzi dutenak Sagrario Iparragirre, Maixe Iturria, Trini Bergara eta Mari Carmen Almandoz izan dira eta

PNV



Vicente Arozena Biurrarena, 58 urte, jubilatua

ZINEGOTZI-GAIAK:

- J. Gabriel Larretxea Leitza
- Julian de la Loma Barreales
- Fco Mazizior Larralde
- Fco Javier Etxeberria Madariaga
- Jesus Bergara Almandoz
- Roman Iparragirre Altamira

sartu direnak berriz, M^a Teresa Graner, Arantxa Elizondo, Gabina Goia eta Edurne Gamio.

LORA DENDA
TXAIRULA
 Bitria LESAKA
 ☎ 627542
 bitxikeriak • opariak • eskulangintza

EKAITZA kafetegia
 GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
 Plaza Berria, 13
 ☎ 948 - 62 75 47
LESAKA
 Lagunekin elkartzeko toki egokia

XATURETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

Winterthur
 Sociedad Suiza de Seguros

Winterthur Aseguroak
 hemendik aitzinera zugandik hurbilago.
 Beran
BERABI AGENTZIA, S.L.
 Legia 1, behea • ☎ 630661
 • Faxa 630805

Eraginkortasun eta azkartasun haundiagoz kasu eginen dizugu, zure eskuetan produktu eta zerbitzu aukera zabala jarritz. Modu honetara hornidura osoa jasoko duzu, zure aurreikuspen behar guziendako egokia

- ◆ **Pertsona eta familiaren babesa**
 (Jubilazioa, pentsioa, bizitza, istripuak, zirugia, ospitaleratzea)
- ◆ **Patrimonioaren babesa**
 (Etxebizitza, komertzioa ibilgailua eta erantzukizun zibila)

Javier Etxeberria Madariaga
 Aseguro Agentea, Inskripzio zkia. 31-0469

Sunbilla

Aste Santuko prozesioa Karrika Nagusitik egin zen

Modu honetara aspaldiko ohitura berreskuratu da

IXABEL ETA JOSUNE

Aste Santua aspaldi pasatu bazen ere, ez dugu utzi nahi aipatu gabe. Alde batetik jende franko, giro ederra eta eguraldi ona, eta bertze aldetik, aurten eguraldiari esker prozesioa egin ahal izan da. Gainera, hainbat eta hainbat urtez egin ez den bezalakoa izan da aurtengoa, Karrika Nagusitik egin baita, lehengo ohitura berreskuraturaz.

Jende dexente bildu bazen ere, erran behar da ahalegina egin behar dela honela ohitura zaharrak mantendu eta aitzinera ateratzeko, pena izanzen babilizake galtzea. Datorren urtean oraindik politagoa izatea espero dugu.



Aspaldiko partez Karrika Nagusitik egin zen prozesioa aurten Arg.: Ixabel

Sunbildarrak garaile futbol-sala txapelketan

Bukatu da futbol-sala txapelketa, oraingoan ere herriko taldea txapelduna atera delarik. 16 talderen artean jokatu zen liga bezala. Gero lau talde gelditu ziren eta hauen artean zegoen irabazlea:

Sunbilla B, Titi ostautua, Burrenba eta Xanpale. Horien artean jokatu ondotik herritarrrak izan ziren txapeldun, jokalarari hauekin: Migel, Aitor, Aizkorbe, Korta, Oskar eta Enrike. Alfredo jokatuko

HAUTESKUNDEAK

EA



Jose Ignacio Mariezkurrena Azpiroz, 45 urte, CSIko lang.

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Fco Javier Petrirena Arretxea 3. J. Miguel Zelaieta Lastiri 4. J. Martin Agirre Iriarte 5. J. Luis Iriarte Ibarra 6. Jose Mitxelena Zelaieta 7. Mario Mitxelena Baztarrika

HB



Faustino Mariezkurrena Azpiroz, 36 urte, CSIko langilea

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. M^a Pilar Korta Gandaria 3. Juan Jorajuria Lastiri 4. Jose Miguel Petrirena Murugarren 5. Rakel Urtxegi Gelbentzu 6. Aitor Zugarramurdi Agirre 7. M^a Pilar Insausti Onda

tu gabe gelditu zen, zaurituta zegoelako. Datorren urtean ez da ligarik jokatuko eta ho-

nen partez, 48 orduko bi txapelketa jokatuko dira, Erregeko eta Udaberriko torneok.



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305



TELLETXEA MOBLEAK

Eskeintza berezia somier eta koltxoietan

- | | |
|-------------------------|-------------|
| • 90KO KOLTXOIA | 9.500 PZTA |
| • 135KO BIKOTE KOLTXOIA | 12.500 PZTA |
| • 105KO KOLTXOIA | 10.500 PZTA |

EGURREZKO LAMINAK DUTEN SOMIERRAK

- | | |
|----------|------------|
| • 90KOA | 5.600 PZTA |
| • 105KOA | 6.400 PZTA |
| • 135KOA | 7.500 PZTA |

Kalitate hoberrera eta
7 urte arteko garanzia

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE





Ameztia ondoko belagia erosi nahi du udalak

Orain Oitz, Donamaria eta Doneztebeko udalen artean banatzen da jabetza

TXEMA ETA KARMELO

Donamariako bidean eta orain arte herriko bestetan zezenttoak izaten ziren belagia bereganatu edo erosi nahi du udalak. Belagia, gaur egun Oitz, Donamaria eta Donez-

tebena da. Bittor Mendiburu eta Jose Ignacio Zabala zinegotzia izanen dira bi herri horietako udalekin tratatua eginen dutenak. Aspaldi xamar zebilen Doneztebeko udala belagi honetan etxebizitzak egin nahian.

Bertzalde, harri losak ateratzeko lanak egokiak ez direla eta, Askineko harrobia itxiraziko du udalak arazoa moldatu arte. Udaleko langileek egindako agiriak dioenez lan horiek komunala den arboldegian kalteak

sortu ditu, harriak bidera erortzen direla eta,azienda buru batzuk galdu dituzte azizien jabeek eta horretaz gain, telebistako antenara hurbiltzen ari direlako antenaren kalteak zuzentzea ez daiteke.

ttipi-flash

- ❖ **Oteixon**
inguruko sei pista zati, 5.620 metro guztira, moldatuko ditu 'Excavaciones Zubillaga' enpresak 15.287.721 pezeta-
ren truke.
- ❖ **DYAr**
30.000 pezetako dirulaguntza eman dio udalak.
- ❖ **Musika patronatoaren**
aurtengo aurrekontua 8.657.960 pezetakoa da.
- ❖ **Aktak**
eta bertzelako agiriak euskarara itzuli ahal izateko 250.000 pezetako aurrekontua sartzea erabaki du udalak. Artazkoz kontzejala honen kontra azaldu zen, bere ustez lan hau Euskara Zerbitzuak egiten ahal duelako. Honetaz gain, zerbitzu honen betetzen duen lanen berri jakiteko egindako eskariari ez omen zaio erantzunik eman.
- ❖ **22 geranio**
ebatsi dituzte Intzakardi ondotik. Jabeak ongari bila joatea eskatu die lapurrei.

HAUTESKUNDEAK

EA



Miguel San Miguel Azpiroz, 37 urte, CSiko langilea

ZINEGOTZI-GAIAK:
2. Javier Elizalde Colau 3. Martin Arretxea Belarra 4. Alejandro Maylin Olaizola 5. M^a Jesus Ganboa Zabalo 6. M^a Jesus Perurena Santesteban 7. J. Luis Olaizola Samaniego 8. Dolores Belarra Belarra 9. Victor Mendiburu Martin

UD



Tomas Ezkurra Zunzarren, 32 urte, langilea.

ZINEGOTZI-GAIAK:
2. J. Ignacio Zabala Gonzalez 3. Miguel M^a Eraso Arregi 4. Julian Gragirena Urrotz 5. Oscar Elortza Villanueva 6. Antonio Artazkoz Goñi 7. Juan Jose Iribarren Juanena 8. Carolina Osinaga Apeztegia 9. Miguel Bertiz Sarratea

HB



Ester Fernandez Casas, 42 urte, margolaria.

ZINEGOTZI-GAIAK:
2. Encarnacion Andueza Oskoz 3. Txema Aldabe Telletxea 4. Carmelo Rearte Belarra 5. Daniel Belarra Mariñelarena 6. Martin Begino Garro 7. Itziar Azpiroz Garcia 8. Jose Manuel Romero Martin 9. Joaquin Balentzia Tirapu

Bear-Zana



Alfredo Zugarramurdi Zozai, 45 urte, nekazaria.

ZINEGOTZI-GAIAK:
2. Fco Etxeberría Lakanbra 3. M^a Teresa Santesteban Santesteban 4. J. Antonio Irazoki Irazoki 5. Irantzu Ostolaza Gaspar 6. Martin Eratsun Telletxea 7. Juana Juanena Telletxea 8. J. Antonio Baleztena Glez. 9. Teresa Gaspar Gutierrez

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaleatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA

MariCruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE



SANTAMARIA
Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

Malerreka

Baratze biologikoari buruzko ikastaroa maiatzean

Hilabeteko lau larunbatetan burutuko da Behinpin taldeak antolatutako kurtsillo interesgarria

TXEMA ALDABE

Nekazaritza biologikoari buruzko ikastaroa burutuko da maiatzeko lau larunbatetan. Behinpin taldeak antolatutako ikastaroan apuntatzeko bileran hamasei lagun elkartu ziren, baina baliteke gehiago ere izatea bertan parte hartuko dutenak.

Orain, baratzetako lurra nola zaindu, ongarri ezberdinen erabilgarritasuna, zer egin landare xomorro eta gaixotasunekin, bazkazien errotazioa, sendabelarrak eta bertzelako gaien berri izanen dute ikastarora joaten direnek.



ITUREN

EA



Jose Iparragirre Altamira, 51 urte, CSIko langilea

ZINEGOTZI-GAIK:
2. J. Angel Aioroa Hualde
3. Pedro M^a Aizkorbe Telletxea
4. Jose M^a Gorosterrazu Elizalde
5. Trinidad Eratsun Ariztegi
6. Marcelino Bazterrika Altxu
7. Ignacio Iribarren Elizalde

HB



M^a Jose Bereau Baleztena, 34 urte, etxeko lanak

ZINEGOTZI-GAIK:
2. Periko Mindegia Elizalde
3. J. Antonio Altxu Juankorena
4. Fco Javier Bereau Mikelarena
5. Fco Almandoz Iparragirre
6. Jose M^a Mikeo Zugarramurdi
7. Belen Azpiroz Bazterrika

Zubieta

Leitzarako karretera moldatzea eskatu da

Udalaren esanetan hainbat kalte sortzen dizkio gidariei errepidearen egoerak

AINHOA MUTUBERRIA

Zubietatik Leitzaraino doan karretera kondizio penagarrietan dagoela eta Nafarroako Gobernuari errepidea berehala konpontzea eskatu dio udalak.

Ahobatez onartutako idatzian, Iruñera joateko edo Leitzara bertara lanera joateko karretera jende askok erabiltzen duela aipatzen da. Eraberean, udalaren ustez "karreteraren egoera txar honek



Leitza aldera doazen ibilgailuek jasan behar izaten dute errepidearen egoera

Arg.: Artxiboa

istripu-arrisku handia sortzen du, baita

gastuak ere, karreterako zuloetan ibiltze-

ak kaltea egiten baitie kotxei". Orain, Gober-

nuaren erantzunaren zain dago udala.

Herri Taldea



Benantzio Baleztena Santesteban, 41 urte, CSIko langilea

ZINEGOTZI-GAIK:
2. Pedro Santesteban Santesteban
3. Hilario Mutuberrria Bazleztena
4. Jaione Telletxea Telletxea
5. Marcelino Santesteban Elizalde
6. Tomas Otxandorena Fagoaga
7. Valentin Santesteban Eskudero

Malerreka

Hauteskunde sistema ezberdinak erabiliko dira herritik herrira

250 biztanlera iristen ez diren herrietan zerrenda-irekien bitartez aukeratuko dituzte beraien agintariak

TTIPI-TTAPA

Hauteskunde modu ezberdinak izanen dituzte Malerrekan. Elgorriaga, Oitz, Eratsun, Urrotz, Beintza-Labaien eta Saldiasen zerrenda-irekien sistema erabiliko dute maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan, guztiak ere 250 bizilagun baino guttiago baitituzte. Halere, lerro hauek idazteko orduan eta dagoeneko aurkezpenarako epea pasatua zenean Elgorriagan eta Beintza-Labaienen ez zen inola zerrendarik presentatu. Sistema honetan, bortz izenez osaturiko zerrendak osatzen dira hauteskundeak baino aste batzuk lehenago. Horretarako, zenbaitetan batzarrea egiten da herrian Urrotzen bezala, eta bertzeetan, alderdiren batek aurkezten du bortz izeneko zerrenda. Bortz izeneko lista hori esku-ratzen du botoemaile-

Ezkurra

Idoia



Peio Zestau Juantorena, irakaslea

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Martin Gastearena Balda
3. Jose M^a Etxeberria Gartziaarena
4. Miguel I. Mariezkurrena Saldias
5. Ana M^a Otxandorena Telletxea
6. Jesus M^a Mariezkurrena Telletxea
7. Miguel M^a Lasarte Mariezkurrena

Donamaria

Herriko T.



Manuel Rekarte Ibarra, 48 urte, CSIko langilea

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Bautista Mitxeo Indakoetxea
3. Julian Mariñelarena Garralda
4. Pedro Ezkurra Sagardia
5. Bernardo Urrotz Mariezkurrena
6. Jose M^a Unda Etxandi
7. Jesus M^a Migeltorena Irigoien

Oitz

Herriarengatik



Ricardo Sagaseta Andiarena, 32 urte, Funberako langilea

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Santiago Jorajuria Mitxeltorena
3. Angel M^a Larraburu Calzado
4. Jose Miguel Lasaga Telletxea
5. Fco Javier Migeltorena Juanena
6. Fco Javier Amigorena Goñi
7. Fco Javier Lizasoain Ariztia

Saldias

EA

1. Carlos Mindegia Mitxeo
2. Juan Pedro Goñi Telletxea
3. Oscar Ilarregi Elizaintzin
4. Jose Antonio Gragirena Andiarena
5. Juan San Migel Urroz

EA

1. Juan Jose Otxandorena Aizega
2. Jose M^a Mikelarena Juanena
3. Jose L. Mitxelena Petrikorena
4. M^a Teresa Mariezkurrena Nuin
5. Jose Mitxeo Baleztena

Eratsun

EA

1. Rufino Mariezkurrena Ezkurra
2. Pedro Beraza Telletxea
3. Jose Luis Eskudero Bengoetxea
4. Miguel R. Deskarga Elizalde
5. Miguel M^a Baztarrrika Baleztena

Urrotz

HE

1. Paskasio Matxinena Iribarren
2. Eustasio Mariezkurrena Telletxea
3. Jose M^a Urroz Erbiti
4. Ignacio Urroz Gragirena
5. Juan Pedro Zozaia Goñi

Eratsun, Oitz, Saldias eta Urrotzek zerrenda irekiak izanen dituzte

ak eta lau izenei paratzen zaio gurutzea. Botu gehien lortzen duen pertsona izanen da alkate eta gainerako hiruak osatuko dute Herriko Etxea. Gainerako herrietan, hau da, Donamaria eta Ezkurran (Ituren,

Zubieta eta Doneztaben bezala) ohiko sistema erabiliko da, talde bakoitzak bere zerrendak aurkeztuz. Ezkurran zerrenda bakarra izanen da aurtengoan eta Donamarian, berriz, bi talde lehiatuko dira.



ttipi-ttapa

Ameriketara Zure senide edo lagun bat Ameriketara bizi eta aldizkaria jasotzea nahi baduzu, deitu eta informazioa emanen dizugu.

63 11 88



HIRI ARTEKO, ESTATU BARNEKO eta NAZIOARTEKO BIDALKETAK

Paketeak eta dokumentuak bidaltzeko modurik azkarrena

- **GARRAIO URGENTEA:** Estatu guztian goizeko 10ak baino lehen entregatuko dugu.
- **24 ORDUKO ZERBITZUA:** Arratsaldeko 6ak arte entregatuko dugu

ZERBITZU GARANTIZATUA

Martin Urrutia Etorbidea z/g • ORONOZ MUGAIRI
Tfnoa eta Faxa: 592179

Malerreka

Gimnasia ikastaroko azken klasea Iruñean eman zuten jubilatuek

Arkupeak elkarteak aurtengo kurtsoa bukatu ondotik Estatu Batuetara eginen duen bidaia prestatzen ari da

TTIPI-TTAPA


Arkupeak jubilatuko 375 bazkidek apirilaren 20an ospatu zuten Iruñeako Anaitasuna polikiroldegian Gimnasiaren lehen Besta Haundia. Honela garrantzi gehiago eman nahi diote elkarteko gidariek aurtengo gimnasia ikastaroaren bukaerari. Herri gehienetan taldeak sortu dira. Amaia Estonba da Arantza eta Igantziko monitorea; Esteban Leitza Oronoz-Mu-

gairi, Elizondo eta Elgorriagakoa; Guillermo Gomez Leitzakoa; Mixel Ibarrola Sunbilla, Aniz eta Legasakoa; Miren Etxenike Saldias, Ezkurra, Doneztebe, Oitz, Eratsun, Donamaria, Ituren eta Zubietakoa; Patxi Ganboa Irungo taldekoa eta Patxi Txokarro arduratzen da Etxalarako taldeaz.

Ariketen ondotik, Nafarroako Gobernu-ko eta bertze erakundetako ordezkariekin bazkaldu zuten.



Jubilatuak kirola egiteko prest





Forma onari eusteko ez zaio adinari begiratu behar, galdetu bertzela Ezkurrako Miguel Mariezkurrena Zarrari. 93 urtetan sasoi ederrean erakutsi zuen, berekin batera ariketak egiten aritu ziren gainerakoek bezala
Arg. D.Noticias

Maitzaren 19an abiatuko da Arkupeak elkarteko taldea Estatu Batuetan bi aste pasatzera

Arkupeak eskualdeko jubilatu eta pensionisten elkarteak hurbilen duen ekitaldia maitzaren 19tik ekainaren 3ra Estatu Batuetara eginen duen bidaia da.

